

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan lan egiten duen pertsona kopurua %4,1 gehitu zen 2005. urtean

Zerbitzuen sektorea izan zen joera onena izan zuena eta langile guztien %64a enplegatu zuena

EUSTATEk egin duen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren azken eguneratzean jasotakoaren arabera, 2005. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten zuten enpresek -lehen sektorekoak izan ezik- 181.533 establezimendutan (fabriketan, dendetan, bulegoetan...) burutu zuten euren jarduera eta 853.835 pertsonari eman zien lana, hau da, aurreko urtean baino %4,1 gehiagori. 2000. urteaz gero 110.006 pertsona gehiago egon zen lanean Euskal Autonomia Erkidegoan, %2,8ko batez besteko urteko tasa pilatuarekin.

2004. urtearen aldean, gainera, establezimendu kopurua %3,5 gehitu zen; gehikuntza hori banku, aseguru eta enpresa-zerbitzuetan, eraikuntzan eta merkataritza eta konponketan eman zen batez ere. Gainerako sektoreetako kopurua berdin mantendu zen.

Jarduera-adar guztietan gehitu zen enplegu kopurua. Banku, aseguru eta enpresa-zerbitzuetan eman zen hazkunde-tasa handiena, %9,5eko igoerarekin; gero merkataritza eta konponketaren sektorean eta ostalaritzan izan zen tasa handiena, %4,7ko igoerarekin. Azkenik, beste zerbitzu-jarduera batzuk eta eraikuntza ere hurbil gelditu ziren %4,6 igoerarekin.

Establezimenduak eta enplegua, jarduera-adarren arabera. 2005

	Euskal AE				Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Kop.	05/04	Enplegua	05/04	Kop.	05/04	Enplegua	05/04	Kop.	05/04	Enplegua	05/04	Kop.	05/04	Enplegua	05/04
Guztira	181.533	3,5	853.835	4,1	23.812	4,9	139.400	4,3	92.820	3,6	428.792	4,1	64.901	2,8	285.643	4,1
Industria eta energia	15.004	-0,8	223.599	0,5	2.468	1,1	46.218	1,7	6.676	-0,3	89.959	-0,5	5.860	-2,1	87.422	0,8
Eraikuntza	25.133	4,8	83.459	4,6	3.400	7,8	12.468	8,3	11.793	4,7	45.736	3,7	9.940	3,9	25.255	4,4
Merkataritza eta konpon.	48.098	4,6	133.524	4,7	5.997	5,4	19.746	6,6	25.547	5,0	70.813	4,8	16.554	3,7	42.965	3,9
Ostalaritza	14.654	-1,5	44.484	4,7	2.027	-0,5	6.319	5,3	8.048	-1,5	22.676	2,9	4.579	-2,0	15.489	7,2
Garraioa eta komunik.	15.067	1,1	48.180	2,5	1.860	3,8	5.971	3,4	7.992	0,8	26.119	1,4	5.215	0,6	16.090	4,0
Bankuak, aseg. eta enpres.z	37.073	7,6	133.254	9,5	4.561	6,9	17.388	5,7	19.725	7,7	77.950	11,0	12.787	7,6	37.916	8,3
Bestelako zerbitzu-jard.	26.504	1,6	187.335	4,6	3.499	5,6	31.290	4,5	13.039	1,2	95.539	4,0	9.966	0,9	60.506	5,7

Iturria: Eustat.

Lurraldeka, Araban sortutako enplegu kopuruak EAEko batez bestekoa gainditu zuen, %4,3ko tasara iritsiz; bestalde, Bizkaiak eta Gipuzkoak %4,1eko tasa izan zuten. Banku, aseguru eta enpresa-zerbitzuen sektoreak izan zuen enpleguaren hazkunderik handiena Bizkaian eta Gipuzkoan; eta Bizkaia izan zen nagusi, bien artean, %11ko tasarekin. Araban eraikuntzak izan zuen hazkunde-tasarik handiena (%8,3) eta Gipuzkoan ostalaritzak (%7,2) eta garraioa eta komunikazioak (%4,0) EAEko batez bestekoa baino tasa altuagoak izan zituzten.

Direktorioan jasotzen diren langileen %64,0 zerbitzuen sektorekoa zen, %26,2 industriakoa eta %9,8 eraikuntzakoa. Industrian egitura aldetik lan gehien eman zuen lurraldea Araba izan zen, %33,2arekin, gero Gipuzkoa (%30,6) eta azkenik Bizkaia (%21,0). Hain zuzen, azken lurralde honek izan zuen zerbitzuen sektoreko (%68,4) eta eraikuntzako (%10,7) langile gehien.

Langile gehien izan zuen zerbitzuetako adarra Zerbitzuetako beste jarduera batzuk izenekoa izan zen; adar honek langile guztien %21,9 zuen, hau da, 187.335 langile. Adar horren atzetik beste hauek izan ziren: merkataritza eta konponketa, 133.524 langilerekin; eta banku, aseguru eta enpresa-zerbitzuak, 133.254 langilerekin. Beraz, bi kasuetan %15,6a.

Aurreko urteetan bezala, tamainaren arabera enpleguaren egiturak ez zuen aldaketarik izan. 2.245 establezimenduk (guztirakoaren %1,2ak) 50 langile edo gehiago izan zituen; beraz, guztira, 327.186 enplegu izan zituzten (guztirakoaren %38,3). Aitzitik, 135.004 establezimendutan (ia lautik hirutan) ez zen 3 lanpostu ere izan; hauek enplegu guztiaren %18,6 bakarrik izan zuten.

ENPRESAK

Euskal Autonomia Erkidegoan jardun zuten enpresen kopurua (lehenengo sektorekoak alde batera utzita) %3,4 hazi zen 2005. urtean; izan ere, 164.086 enpresa aktibo izan ziren. Enpresen %97,8ak Euskal Autonomia Erkidegoan du egoitza, eta 3.669 enpresak Estatuko gainerako lurraldeetan; hain zuzen, azken hauek 95.553 langile zituzten, guztirakoaren %11,2.

Enpresen batez besteko tamaina egonkor mantendu zen: 5,2 langile enpresa bakoitzeko eta 4,7 langile establezimendu bakoitzeko. Hala ere, azterketa nortasun juridikoaren arabera eginez gero ezberdintasun nabarmenak ikusten dira. Pertsona fisikoa titular den kasuetan enpleguen 1,3 eta 1,4 baino ez zen eman, bai enpresa bakoitzeko eta bai establezimendu bakoitzeko ere; baina gainerako forma juridikoetan 11,1 eta 9,1 langile zegoen enpresa eta establezimendu bakoitzean, hurrenez hurren.

ENPRESEN DEMOGRAFIA

Hasi berri ziren eta euren jarduera burutu zuten establezimenduen saldo garbia 6.121ekoa izan zen, hau da, ia 2004. urtekoaren bikoitza. Enplegua sortzeari dagokionez, 12.858 langile gehiago izan zen, itxi behar izan zuten establezimenduen aurrean berriek enplegu gehiago eman baitzuten. Jardunean jarraitu zuten establezimenduen artean ere 20.934 langilerentzako enplegu gehiago izan zen. Azken finean, guztira, jarduera ekonomikoak 33.792 lanpostu berri sortu zituen.

Txandakatze handiena Pertsona fisikoa izeneko formula juridikoarekin sortutako establezimenduetan eman zen, hauetan eman baitziren alten %59,1 eta baxen %67,5. Talde horretako saldo osoa 2.064 establezimendurekin eta 2.215 enplegurekin gehitu zen irekiera berrien ondorioz; hauek, izan ere, lagapenen ziozko galerak eta beste forma juridiko batzuetarako eraldaketak gainditu zituzten.

Establezimenduen demografia. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2005

Jardueraka	Saldo orokor. (2005-2004)		Lege-nortasunka	Saldo orokor. (2005-2004)	
	Kop.	Enplegua		Kop.	Enplegua
Guztira	6.121	33.792	Guztira	6.121	33.792
Industria eta energia	-116	1.098	Pertsona fisikoa	2.064	2.215
Eraikuntza	1.143	3.640	Baltzu anonimoa	60	8.775
Merkataritza eta konponketa	2.126	6.046	Erantzuk. mugatuko baltzua	3.126	16.703
Ostalaritza	-225	1.989	Bestelako baltzu eta elkart.	863	3.924
Garraioa eta komunikabideak	161	1.167	Bestelako lege-erak	8	2.175
Bankuak, aseguruak eta enpres. zer	2.603	11.554			
Bestelako zerbitzu-jarduerak	429	8.298			

Iturria: Eustat.

Azken urteetako dinamismoarekin jarraituz, Sozietate Mugatuak 3.126 establezimenduko saldo positibo osoa eta 16.703 lanpostuko gehikuntza garbia eman zuen 2005. urtean. Bada, urte horretan 220.031 lanpostu lortu ziren, guztirakoaren %25,8. 2004. urtean ez bezala, 2005ean Sozietate Anonimoak diren establezimenduak ez ziren gutxitu; aitzitik, 60 gehiago izan ziren. Establezimendu horien enpleguaren saldo garbia ere gehitu egin zen, 8.775 lanpostu izan baitziren.

Demografia jardueraren arabera aztertuz gero, honako adar hauek nabarmendu ziren: banku, aseguru eta enpresa-zerbitzuak, alta guztien %28,5arekin eta baja guztien %22,5arekin; eta merkataritza eta konponketa sektorea, alden %24,7arekin eta bajeen %20,4arekin. Ez zen oso urrun geratu, dena den, eraikuntzaren sektorea; honek alden %20,6 eta bajeen %21,4 izan zituen.

Enpleguari dagokionez, ekarpenik handiena banku, aseguru eta enpresa-zerbitzuak izeneko adarrak egin zuen, enplegu berri guztia %23,8ko ekarpenarekin. Halaber, ekarpen hori ere sektore guztietan zuen pisu zehatzagatik dagokionarekiko nahiko altua zen (%15,6). Bigarren ekarpen handiena merkataritza eta konponketa sektorearena izan zen, %20,1eko ekarpen garbiarekin; zerbitzuetako beste jarduera batzuen sektorea, aldiz, hirugarren postuan gelditu zen %18,9ko ekarpenarekin.

Establezimenduen tamaina kontuan hartuta, estratu dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa izan zen, orain arte bezalaxe. Beraz, horrek erregistratu zuen alta guztien %84,9 eta baja guztien %85,0. Nolanahi ere, enplegu osoa sortzeari dagokionez, estratu dinamikoena 50 enplegu eta gehiagokoa izan zen; estratu horrek enplegu berrien ia erdia eman zuen (16.759 enplegu), batez ere jardunean jarraitu zuten establezimenduetan enplegu gehiago sortu zelako.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Federico Gutiérrez

Tel:+34-945-01 75 43 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es